

Funtsezko baliabideak

Gure enpresaren alderdi guztiak aurrera eraman ahal izateko (egoitza eta nagusien zerbitzua) funtsezko baliabide batzuk behar ditugu. Hauek 2 multzotan bereizi ahal dira, ukiezinak eta materialak. Hauen artean, badaude garrantzi gehiago dituzten baliabide batzuk gure enpresaren hazkundera lortzeko, guztiak baliagarriak izan arren.

EGOITZA:

- Ukiezinak
 - ❖ Inkestak
 - ❖ Pertsona adituak: Animalien entrenamenduaz eta haien ongizateaz arduratzeko beharrezkoak diren pertsonak.
 - Albaitaria
 - Entrenatzaileak
 - ❖ Arauak (ordutegi zehaztuak)
- Materialak
 - ❖ Lokala + ingurumen zabala
 - ❖ Janaria ona
 - ❖ Animalientzako jostailuak
 - ❖ Higiene produktuak
 - ❖ Tresna teknologikoak: Segurtasun kamerak gune guztiak kontrolatutak izan ahal izateko. Horrela bezeroen erregistro zehatza izango dugu ordutegiak... kontrolatzeko

Aipatutako baliabide guztien artean, gure egoitzaren garapena bermatzeko baliabide ukiezin garrantzitsuenak pertsona adituak dira haien segurtasuna eta ongizatea mantentzeko. Hauek haien entrenamenduaz arduratuko dira, eta atentzio pertsonalizatua eskainiko dute haien egonaldia ezinhobea izan dadin. Hauen artean pertsona ezberdinak topa ditzakegu: entrenatzaileak, albaitariak... Aldi berean, ezinbestekoa den beste baliabide ukiezin bat arauak dira. Arauak ezartzea oso garrantzitsua da orden bat mantentzeko eta animaliak nahi dutena ez egiteko.

Horretarako ordutegi bat jarriko dugu janariak, entrenamenduak eta ariketak noiz egingo diren zehazteko, lo egiteko ordu bat finkatzeko eta albaitaria noiz etorri behar den jakiteko eta familiak haien maskotak noiz ekarri dezaketen jakitearren.

Bestalde, hainbat baliabide material ditugu: lokala, kalitatezko janaria, jostailuak, higieine produktuak eta tresna teknologikoak bezala. Haien artean garrantzitsuenak lokala eta ingurumen apropos bat izatea aurkitu dezakegu. Gure egoitza El Regaton egongo da ingurumen natural bat izateko animaliak aske izan dadin. Horrela haiek eroso egongo dira babestutak diren bitartean. Ingurumenaz aparte, lokala garrantzitsua da animalian han lo egingo dutelako, eta ingurumen apropos bat izan arren, denbora gehiena lokalan igaroko dutelako.

Beste baliabide material bat balio handia duena higieine produktuak dira. Animaliekin lan egitean, aztarna ugari egon daitezke lokalan, eta hori kontrolatzeko beharrezkoa den ekipamendu guztia izango dugu ingurunea bai animaliak bai langileak ahalik eta hoberen egon dadin.

Garrantzitsuenetarikoa bat den azken baliabidea tresna teknologikoak dira. Gailu teknologikoekin segurtasun kamerak izango ditugu zerbait gertatzekotan ikusi ahal izateko. Aldi berean, tresna teknologiko hauek balioko dute erregistro bat izateko sartzen eta irtetzen diren bezeroekin, ordutegiak zehazteko, eta faktura eta kontu guztiak modu digitalean izatea posiblea izan dadin.

ZERBITZUA:

- Ukiezinak
 - ❖ Inkestak eta deiak komunikazioa mantentzeko
- Materialak
 - ❖ Garraioa

Kasu honetan, gure enpresa bi atal desberdinetan bereizi ahal dugu, funtsezko baliabide batzuk izango ditugu egoitzaren kasuan eta aitona-amonen egoitzarako beste baliabide batzuk erabiliko ditugu. Alde batetik, baliabide ukiezinak ditugu. Hauek ez dira materialak

baina gure zerbitzua eskaintzeko momentuan beharrezkoak dira. Bestalde, baliabide materialak daude, gure zerbitzua asko erraztuko dutenak.

Gure zerbitzuan ezinbesteko baliabide materiala garraioa izango da. Animalia guztiak egoitzatik aitona-amonen egoitzetara eramateko garraio fisikoarekin askoz ere produktiboagoak izango gara, garraioa azkarrago, denbora laburragoan eta modu eraginkorragoan egin ahal izango baitugu. Horregatik, kasu honetan, baliabide materiala tamaina handiko furgoneta bat izango da, eta bertan eraman ahal izango ditugu maskotak. Bestalde, furgonetan egongo den material espezializatu guztia ere oso garrantzitsua da. Gure furgonetan segurtasun-kaiolak egongo dira txakurrak modu seguruan eramateko eta ezer ez gertatzeko. Horrez gain, ezustekorik izanez gero, larrialdiko janaria eta sendagaiak ere izango ditugu.

Gure baliabide ukiezinak materialak duen garrantzi bera izango du; izan ere, inkestei esker eta aitona-amonen egoitzekin harremanetan egoteari esker, jakingo dugu gure enpresa benetan betetzen ari den zerbitzu optimoa eskaintzeko helburuak. Gure inkestak adineko pertsonen eta egoitzetako langileei zuzenduta egongo dira. Langileek, inkesten bidez, beren ikuspuntutik jakinaraziko digute ea gure txakurrekin ematen dugun zerbitzua bateragarria den aitona-amonen premiekin, eta, hobekuntzarik behar izanez gero, haiek proposatuko dituzten. Bestalde, uste dugu garrantzitsua dela aitona-amonek gure inkestak egitea, pertsona horientzat sortu baitugu gure zerbitzua, eta axola zaigu jakitea benetan erabilgarria den ala ez.